



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 13a

68. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-24/PRO-00003. Foru Legea, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00037. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

—11-24/MOC-00039. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomoendako leihatila bakarra abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

—11-24/MOC-00056. Erabakia, zeinaren bidez Nazioarteko Olinpiar Batzordea premiatzen baita ez dezan onar Israel 2024ko Olinpiar Jokoetan. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00062. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sor dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00063. Erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita Hauteskunde-arau-bide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa alda dezan, halako moduan non tokiko hautesle-elkarteen eta alderdi txikien egiazko beharizanen arabera mugatuko baita gastua eta zehapen-araubide proportzional bat ezarriko baita. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00064. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoriaren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 0-3 zikloa modu integralean eskaini dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza eta onura sozial oro ken diezaien Espainiako nahiz Europar Batasuneko legeak urratuz gure nazioan sartu diren etorkin ilegalei, salbu eta euren jatorrizko herrialdera itzularazi arte behar duten giza laguntza urgentea. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-24/PRO-00003. Foru Legea, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua aldatzen duena**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko maiatzaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunean: Ainhoa Unzu Garate

**Foru Legea, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua aldatzen duena**

**HITZAURREA**

383/2008 Errege Dekretuak, martxoaren 14koak, zeinaren bidez erretiro-adinaren murrizte-koefizientea ezartzen baita administrazio eta erakunde publikoen zerbitzura diharduten suhiltzaileentzat, jaitsi egiten du suhiltzaile bezala "eskala, kategoria edo espezialitate desberdinetan" zerbitzu ematen dutenen erretiro-adina.

Martxoaren 9ko 8/2023 Foru Legearen bidez, aldatu egin zen Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea. Aldatu zen, besteak beste, 53. artikulua, Suteen Prebentzio eta Itzaltze Zerbitzuko lanpostuen artean sartuak izanez basosuhiltzaile gisa diharduten langileenak. Langile horiek orain dela urte askotatik ari dira ordaintzen murrizte-koefizientea erretiro-adinaren aurrerape-nerako aplikatzearen kostua, hain zuzen adminis- trazio eta erakunde publikoen zerbitzura dihardu-

ten suhiltzaileentzat erretiro-adinaren murrizte-koefizientea ezartzen duen martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak dioen bezala. Are gehiago: horietako batzuek erretiro aurreratua hartu dute.

Martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak arautzen duen murrizte-koefizientea suhiltzaile gidari laguntzaileei eta suhiltzaile peoi laguntzaileei aplikatu ahal izateari buruz sorturiko interpretazio-arazoak ebazte aldera, aldatu behar-koa gertatzen da uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua, non lanpostu eta eginkizunak zehazten baitira. Horretarako, testu berria ematen zaie e) eta f) letrei, eta paragrafo berri bat gehitzen zaio aipatu artikulua 1. apartatuari.

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artiku- luaren 1. apartatua.

Aldatu egiten dira 53. artikulua 1. apartatu- ko e) eta f) letrak, eta f) letraren ondoren paragra- fo berri bat gehitzen da. Hona edukia:

"e) Suhiltzaile gidari laguntzailea, D mailakoa. Esku-hartze operatiboko laguntza-eginkizunak dagozkio, bere jardun-esparruaren barrenekoak, goragoko agintedunen zuzendaritzapean.

f) Suhiltzaile peoi laguntzailea, D mailakoa. Esku-hartze operatiboko laguntza-eginkizunak dagozkio, bere jardun-esparruaren barrenekoak, goragoko agintedunen zuzendaritzapean.

Apartatu honetan zehazturiko lanpostuak suhil- tzailearen lanbide-kategoriako eskala edo espezia- litate desberdinen barrenekoak direla jotzen da".

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/MOC-00037. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide ezar dezan 889/2022 Errege-dekretuan ezarritakoa betetzeko eta sei hilabeteko epean gehienez

ere ebazteko atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du espresuki jaso dadin Foru Hobetzearen hurrengo berrikusketan, Parlamentuko ponentzian, atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskumena, halako moldez non Nafarroako Gobernuak lehenbailehen izapidetu ahalko baitu haren eskualdatzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunear: Ainhoa Unzu Garate

## **11-24/MOC-00039. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomoendako leihatila bakarria abian jar dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomoendako leihatila bakarria abian jar dezan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzatesten eta balioan jartzen du autonomoek gure erkidegoaren hazkunde eta garapen sozial eta ekonomikoari egindako ekarpena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du autonomoendako leihatila bakarria abian jar dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du administrazio barruko traba burokratikoak ken ditzan, izapide administratiboak errazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du autonomoek langileak kontratatu ahal izateko neurriak abian jar ditzan.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestakuntza etengabea susta dezan lan autonomoaren bizitzan zehar.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurri eraginkorrak eta langile autonomoen erantzukizun partekatua susta ditzan.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du modu aktiboan lan egin dezan lan autonomoak dakartzan laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lan Autonomoaren II. Plana onetsi dezan gehienez ere hiru hilabeteko epean.

9. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txostenak egin ditzan enpresa eta enplegu-gaietan hartzen den neurri bakoitzak autonomoen jardunean duen eraginari buruz.

10. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua dei dezan, hilabeteko epean gehienez ere.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunear: Ainhoa Unzu Garate

## **11-24/MOC-00056. Erabakia, zeinaren bidez Nazioarteko Olinpiar Batzordea premiatzen baita ez dezan onar Israel 2024ko Olinpiar Jokoetan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nazioarteko Olinpiar Batzordea premiatzen baita ez dezan onar Israel 2024ko Olinpiar Jokoetan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Espainiako Olinpiar Batzordeari eska diezaion honako hauek helarazteko Nazioarteko Olinpiar Batzordeari:

1. 2024ko udako Olinpiar Jokoetan ez dezan onar Israelgo estatuaren kirolaririk eta ordezkari ofizialik, Israelgo estatua Gazako herritarren

aurka egiten ari den eraso militarrik dirauen bitartean.

2. 2024ko Paralinpiar Jokoetan ez dezan onar Israelgo estatuaren kirolaririk eta ordezkari ofizialik, Israelgo estatua Gazako herritarren aurka egiten ari den eraso militarrik dirauen bitartean.

3. 2024ko Gazteriaren Olinpiar Jokoetan ez dezan onar Israelgo estatuaren kirolaririk eta ordezkari ofizialik, Israelgo estatua Gazako herritarren aurka egiten ari den eraso militarrik dirauen bitartean”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunear: Ainhoa Unzu Garate

---

## **11-24/MOC-00062. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sor dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sor dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du LGTBIfobiaren aurkako Foru

Behatoki bat sor dezan bi urteko epean, zeina txertatuko baita administrazio publikoetan eskueran dauden baliabideen artean eta horiekiko koherentziaz. Horren sorkuntza partaidetzazkoa eta diziplinartekoa izanen da”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunear: Ainhoa Unzu Garate

## **11-24/MOC-00063. Erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita Hauteskunde-araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa alda dezan, halako moduan non tokiko hautesle-elkarteen eta alderdi txikien egiazko beharrianen arabera mugatuko baita gastua eta zehapen-araubide proportzional bat ezarriko baita**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita Hauteskunde-araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa alda dezan, halako moduan non tokiko hautesle-elkarteen eta alderdi txikien egiazko beharrianen arabera mugatuko baita gastua eta zehapen-araubide proportzional bat ezarriko baita. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiatzen du ekin diezaion Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Foru Legebiltzar honek behin eta berriz egin dituen eskaerei erantzuteko lanari, hautesle-taldeen eta tokiko alderdi txikien benetako beharretara egokitutako gastu-mugak eta zehapen-araubide proportzionala jasoz”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunear: Ainhoa Unzu Garate

---

## **11-24/MOC-00064. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoriaren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoriaren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak dio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoriaren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du indartu dezan biktima guztien aitortza, erreparazio eta memoriarako politiken sustapena.

3. Nafarroako Parlamentuak agertzen du errefusatu egiten duela gai horretan atzerapausoak ematea, kasurako, Memoria Demokratikoaren Legeak indargabetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunear: Ainhoa Unzu Garate

## **11-24/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita 0-3 zikloa modu integralean eskain dezan**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, ezetsi du EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Eneko Maiz Ulaiar andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita 0-3 zikloa modu integralean eskain dezan. Mozioa 2024ko apirilaren 30eko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jar-  
dunear: Ainhoa Unzu Garate

---

## **11-24/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita laguntza eta onura sozial oro ken diezaien Espainiako nahiz Europar Batasuneko legeak urratuz gure nazioan sartu diren etorkin ilegalei, salbu eta euren jatorrizko herrialdera itzularazi arte behar duten giza laguntza urgentea**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztuta-ko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita laguntza eta onura sozial oro ken diezaien Espainiako nahiz Europar Batasune-ko legeak urratuz gure nazioan sartu diren etorkin ilegalei, salbu eta euren jatorrizko herrialdera itzu-  
larazi arte behar duten giza laguntza urgentea. Mozioa 2024ko apirilaren 30eko 61:Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jar-  
dunear: Ainhoa Unzu Garate

